

INDUSTRI PRODUKZIOAREN INDIZEA (IPI), 2005eko URRIA


Euskal AEko industri jarduera %2,4 hazi zen 2005eko urrian

2005eko lehenengo hamar hilabeteko bilakaerak %2,7ko hazkundea izan zuen, 2004ko aldi beraren aldean

EUSTATEk landutako datuen arabera, 2005eko urrian %2,4 hazi zen Euskal AEko industri produkzioa lan-egutegiko termino homogeneotan, 2004ko hil beraren aldean. Urteko lehenengo hamar hilabeteen %2,7ko hazkundea izan zen, aurreko urtearen aldi berarekin alderatuta.

Hilabete arteko datuak alderagarriak izan daitezzen urtaroen eragina zuzenduta, 2005eko urrian %1,0 murriztu zen Euskal AEko industri produkzioa, aurreko hilarekin alderatuta.

Euskal AEko industri produkzioaren urte arteko hiruhilekoko hazkunde zuzendua



(*) 2005eko urriko urte arteko hazkunde zuzendua

Iturria: Eustat

Sektore-bilakaera

Sektoreka, produktutako ondasunen helburu ekonomikoaren arabera industri sektore handien sailkapena kontuan hartuta, 2005eko urriko indizearen bilakaerak honako aldakuntzak izan zituen, 2004ko urriaren aldean: urte arteko hazkunde-tasarik handiena *energiak* (%8,3) lortu zuen, segidan *ekipo-ondasunek* (%5,2) eta *bitarteko ondasunek* (%1,0). *Kontsumo-ondasunak* osotara %3,7 jaitsi ziren, *kontsumo-ondasun iraunkorrak* %3,2 eta *kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak* %4,0, aurreko urtearen aldean.

2005eko lehenengo hamar hilabeteen metatuan, *ekipo-ondasunak* %5,4 hazi ziren, *energia* %2,5, *bitarteko ondasunak* %2,0, eta *kontsumo-ondasunak* %0,4; azken horien barruan, *kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak* %0,6 hazi ziren eta *kontsumo-ondasun iraunkorrak* (%0,0) ez ziren mugitu; horiek guztiak 2004ko lehenengo hamar hilabeteekin alderatuta.

2005eko irailaren aldean, 2005eko urriko hil arteko aldakuntza bestelakoa izan zen industri sektore handietan. Hil arteko hazkundea izan zuen *energiak* (%5,1), baina gainerako sektoreetan jaitsierak izan ziren: *kontsumo-ondasunak* %4,8 jaitsi ziren, *kontsumo-ondasun iraunkorrak* %2,5 eta *kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak* %5,9; *ekipo-ondasunak* %1,1 murriztu ziren eta *bitarteko ondasunak* %0,9.

Bilakaera lurralde historikoaren arabera

Lurralde historikoei dagokienez, urriko Industri Produkzioaren Indizearen urte arteko bilakaerak positiboak izan ziren lurralde guztietan: %4,8 hazi zen Araban, %2,8 Gipuzkoan eta %0,8 Bizkaian.

Lurraldeetako hil arteko hazkunde-tasek (2005eko urriko datu desestazionalizatuak, urte bereko irailaren aldean) bilakaera negatiboak izan zituzten hiru lurraldetan: Bizkaian %1,1 jaitsi ziren, Araban %1,0 eta Gipuzkoan %0,8.

taula: 2005eko URRIA. Euskal AEko Industri Produkzioaren Indizearen aldakuntza-tasak (%).

Kontzeptua	Zuzendua		Desestazionalizatua	
	urr05/urr04	At/At-1 (1)	urr05/ira05	ira05/abu05
Indize orokorra: Euskal AE	2,4	2,7	-1,0	0,6
Araba	4,8	1,9	-1,0	1,5
Bizkaia	0,8	2,3	-1,1	-0,4
Gipuzkoa	2,8	3,5	-0,8	1,2
Indizeak helburu ekonomikoka- Euskal AE				
Kontsumo-ondasunak	-3,7	0,4	-4,8	5,2
-Kontsumo-ondasun iraunkorrak	-3,2	0,0	-2,5	6,0
-Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	-4,0	0,6	-5,9	4,9
Ekipo-ondasunak	5,2	5,4	-1,1	5,2
Bitarteko ondasunak	1,0	2,0	-0,9	-1,3
Energia	8,3	2,5	5,1	-1,6

(1) t urteko urtariletik azken hilera arteko aldi metatuaren urte arteko aldakuntza-tasa, t-1 urtearen aldi berdinen aldean

Iturria: Eustat

Informazio gehiago:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tlf:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 e-maila: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tlf:+34-945-01 75 06 Faxa:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu Bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp